



● heldu

- Besoa luzatu, eta **adar bati heldu zion**.
*Besoa luzatu eta adar bat heldu zuen.
- Tinko heldu nion **sokari**.
*Tinko heldu nuen soka.
- Beste gai bati helduko diogu orain:...
- Buruargia da, oso bizkorra **ideia berriei heltzeko**.
- **Zeri heldurik ez dauka**.
- Gerrari laga eta / **bakeari heldu** / inozente gaudenak / ez gaitezen galdu.

Xenpelar "Bertso berriak" c. 1869



● heldu

-TIK heldu

- **Besotik heldu nion** alde egiteko unean.
*Besotik heldu nuen alde egiteko unean.
- **Gerritik heldu zidan.**
*Gerritik heldu ninduen.
- Costellok **paparretik heldu zion Galanteri.**
*Costellok paparretik heldu zuen Galante.


- Maiz agertzen da egitura hau ahozko zein idatzizko jardunetan:

ZERBAITI/NORBAITI + [izena]TIK + heldu

● eutsi

- **Arnasari** eutsi zion eta zelatan geratu zen.
- **Neureari** eutsi nion, sendo eta gogor.
- Niri ere gustatzen zait nola **eusten dioten** osagai kulunkari elkarlotu horiek beren **erritmo tinkoari**.

Dava Sobel: *Longitueda*, EHUpress (ZIO bilduma), 2012. Euskaratzailea: Irene Aldasoro.



● oratu

- Uretara jausi, eta ozta-ozta **oratu zion** berriz ere **txalupari**.
- Astigar-haziak, helize-forman erortzen delarik, **aireari oratzen dio**.
- Nukleoak tinko **orutzen dio elektroari**, eta, hala, ionizazio-energiak gora egiten du.



Peter William Atkins: *Erreinu periodikoa*, EHUpress (ZIO bilduma), 2011.
Euskaratzailea: Juan Garzia.

-TIK oratu

- **Besotik** oratu zidan eta bazter batera eraman ninduen.
*Besotik oratu ninduen eta bazter batera eraman.
- **Pertsonari hitzetik** eta **idiari adarretatik** oratu behar zaio.
*Pertsona hitzetik eta idia adarretatik oratu behar da.



KONTUAN HARTZEKO:

Heldu, eutsi eta oratu aditzek **datiboz** markatzen dute osagarria.